

ETORKINAK BERGARAN

(2004)



BERGARAKO UDALA

ETORKINEN INGURUKO MEMORIA

Egilea:

Maite Mugica Tornos

Gidaritza eta moldaketak:

Ion Lopez Santamaria

Batzordeburua eta moldaketak:

Arantzazu Amasorrain Linazisoro

Bukaera data: 2004-11-03

AURKIBIDEA

1	SARRERA	5
2	INFORMAZIO JURIDIKOA	6
3	ETORKINAK ETORTZEKO ARRAZOI POSIBLEAK	7
4	BERGARAKO IMMIGRAZIOAREN DATUAK	7
4.1	GENEROAREN ARABERA	7
4.2	ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA	8
4.2.1	<i>Herrialdeka</i>	8
4.2.2	<i>Kontinenteka</i>	9
4.3	GENEROA ETA JATORRIA KONTUAN HARTUTA	10
4.3.1	<i>Jatorriaren arabera gizon eta emakumeak</i>	10
4.3.2	<i>Gizon eta emakumeak jatorriaren arabera</i>	11
4.4	ADINAREN ARABERA BANATUTA	12
4.4.1	<i>Adina eta sexuaren arabera banatuta (etorkinen populazio piramidea)</i>	13
4.5	BIZILEKUAREN ARABERA	14
4.5.1	<i>Bizi diren kale eta auzoen arabera banatuta</i>	14
5	UDALAK ESKEINTZEN DITUEN ZERBITZUAK	15
5.1	GIZARTE ONGIZATEA	15
5.2	ARTXIBOA	15
5.3	EUSKARA	15
5.4	HIRIGINTZA	16
5.5	IDAZKARITZA	16
5.6	KIROLA	16
5.7	KONTU HARTZAILETZA – HAZIENDA	17
5.8	KULTURA	17
5.9	LIBURUTEGIA	18
5.10	MUSEOLOGOA	18
5.11	UDALTZAINGOA	18
6	EREMU EZBERDINETAKO DIAGNOSIA	19
6.1	HARRERA ETA ASISTENTZIA SOZIALA	19
6.1.1	<i>Eremu honetan etorkinak izan ditzakeen beharrak</i>	19
6.1.2	<i>Udaleko zein zerbitzu erabiltzen dituzte eremu honetan</i>	19
6.1.3	<i>Kanpo erakundeek egiten dutena</i>	21
6.2	LANA	22
6.2.1	<i>Egiten dituzten lanak</i>	22
6.2.2	<i>Eremu honetan aurkitzen dituzten zailtasunak</i>	22
6.2.3	<i>Udaleko zerbitzuek egiten edo eskaintzen dutena eremu honetan</i>	23
6.2.4	<i>Kanpoko erakundeek egiten dutena</i>	23
6.3	ETXEBIZITZA	25
6.3.1	<i>Udalak eremu honetan eskaintzen duena</i>	25
6.3.2	<i>Kanpo erakundeek egiten dutena</i>	25
6.4	HEZKUNTZA	26
6.4.1	<i>Haur eta gaztetxoak</i>	26
6.4.1.1	<i>Udaleko hezkuntza saila</i>	26
6.4.1.2	<i>Hezkuntza formala</i>	27
6.4.1.2.1	<i>Eskola bakoitzean eskolaratutako ikasle atzerritarren kopurua</i>	27

6.4.1.2.2	Matrikulazioa eta epez kanpoko matrikulazioa	27
6.4.1.2.3	Etorkin berriak eskolan: ematen dituzten pausoak	28
6.4.1.2.4	Ikastetxeek etorkinen integrazioan lortutako emaitzak	29
6.4.2	Gazte eta helduak	30
6.4.2.1	HHI-EPA-n egiten dutena	30
6.4.2.2	Caritasen egiten dutena	31
6.5	KIROLA	31
6.5.1	Erabiltzen dituzten zerbitzuak	31
6.6	EUSKARA	32
6.6.1	Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak	32
6.6.1.1	Udal euskaltegia	32
6.6.1.2	Euskara zerbitzua	32
6.6.2	Kanpo erakunde edota agenteetan	33
6.6.2.1	Jardun euskara elkarteak	33
6.6.2.1.1	Haur etorkinentzat euskara errefortzuak	33
6.6.2.1.2	Aisialdi taldea	33
6.6.2.2	Ikastetxeetan	34
6.6.2.2.1	San Martin herri eskolan	34
6.6.2.2.2	Aranzadi ikastolan	34
6.6.2.2.3	Ipintza institutuan	35
6.6.2.2.4	Mariaren Lagundian	35
6.6.2.3	HHI-EPA	36
6.6.2.4	Caritas	36
6.7	KULTURA	36
6.7.1	Udalak gai honen inguruan egiten duena	36
6.7.2	Kanpo erakundeek egiten dutena	37
6.8	BESTE EREMU BATZUK	37
6.8.1	Udal barnean	37
6.8.1.1	Liburutegia	37
6.8.2	UDAL KANPOKO ERAKUNDEA	37
6.8.2.1	KZ Gunea	37
7	ETORKINEK, EGOERA LEGALAREN ARABERA, ZERBITZUAK ERABILTZEKO DUTEN AUKERA	38
7.1	UDALEAN	38
7.2	UDAL KANPOKO ERAKUNDE EDO AGENTEETAN	39
8	ETORKINEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN ZERBITZU ETA LAGUNTZETAN AURKI DAITEZKEEN HUTSUNEAK	39
8.1	LEHENENGO HARRERA	39
8.2	LANA	40
8.3	ETXEBIZITZA	40
8.4	HEZKUNTZA	40
8.5	KIROLA	41
8.6	EUSKARA	41
8.7	KULTURA	42
9	HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	42
9.1	OROKORREAN	42
9.2	HARRERA	43
9.3	KULTURA	43
9.4	KIROLA	43
9.5	LANA	44
9.6	ETXEBIZITZA	44
9.7	HEZKUNTZA	44
9.8	EUSKARA	45

1 SARRERA

Esan beharrik ez dago, nazioarteko immigrazioa azken urteetan Euskal Herrian izan dugun fenomeno garrantzitsuenetariko bat dela. Garrantzitsua izateaz gain, fenomeno nabarmena bilakatzen ari da. Gure herrian immigrazioa, nahiz eta fenomeno berria izan, agerikoa da herritar guztiontzat, kalean gero eta atzerritar gehiagorekin egiten baitugu topo.

Txosten honen bidez, herriak, bai Udalak bai udal kanpoko erakunde edota agenteek, immigrazioaren fenomenoari nola erantzuten dion ikusiko dugu. Beste era batera esanda; herriak etorkinei eskaintzen dien zerbitzuen diagnostia eta etorkinek dituzten beharrei herriak nola erantzuten dien aztertzen saiatzen da.

Horretarako, txostena hainbat zatitan egituratuta dago. Honako hauek izango dira txosten honetan agertzen eta aztertzen diren puntuak:

- Informazioa Juridikoa: bertan, Atzerritarren Legea eta gai hau jorratzen duten beste Lege eta Errege Dekretu garrantzitsuenak aipatzen dira.
- Etorkinak etortzeko arrazoi posibleak: etorkinek Euskal Herrira etortzeko dituzten arrazoiak azaltzen dira.
- Bergarako immigrazioaren datuak: etorkinak era ezberdinetan taldekatu eta taldekatze horietatik hainbat ondorio atera dira.
- Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak: Udalak dituen departamentuak eta hauek herritarrei eskaintzen dien zerbitzuak eta aukerak zerrendatzen dira.
- Eremu ezberdinetako diagnostia: etorkinak gure artean bizi diren bitartean, udaleko zerbitzu ezberdinek eta udal kanpoko erakundeek etorkinek bizitzako hainbat eremutan izan ditzaketen beharrei nola erantzuten dien aztertzen du.
- Etorkinek egoera legalaren arabera zerbitzuak erabiltzeko aukera: puntu honetan udal barnean eta kanpo erakundeetan etorkin paperduna edo paper gabekoa izatean zerbitzuak erabiltzeko dituen aukerak konparatzen dira.

- Etorkinei eskaintzen zaizkien zerbitzu eta laguntzetan aurki daitezkeen hutsuneak: udal zerbitzuek, eta neurri txikiago batean udaletik kanpo dauden erakundeek, etorkinei egiten zaien harreran eta beste hainbat eremutan dituzten hutsuneak aipatzen dira.
- Hobekuntza proposamenak: Udalak eta kanpo erakundeek etorkinei eskaintzen dizkieten zerbitzuak hobetzeko, laguntza eskaintzeko eta beraiek dituzten beharrei era egokiago baten erantzuteko proposamen zerrenda ageri da.

2 INFORMAZIO JURIDIKOA

- Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta libertateei buruzkoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren arabera aldatua.
- 864/2001 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Espainian atzerritarrek dituzten eskubide eta libertateei eta hauen gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoaren arabera berriturikoa, betearazteko Araudia onartzen duena.
- 5/1984 Legea, martxoaren 26koa, Egoitza Eskubideari eta Errefuxiatu baldintzari buruzkoa, maiatzaren 19ko 9/1994 Legearen arabera aldaturikoa.
- 203/1995 Errege Dekretua, otsailaren 10ekoa, Egoitza Eskubideari eta Errefuxiatu baldintzari buruzko martxoaren 26ko 5/1984 Legea, maiatzaren 19ko 9/1994 Legearen, uztailaren 20ko 864/2001 Errege Dekretuaren eta uztailaren 20ko 865/2001 Errege Dekretuaren arabera aldaturikoa, aplikatzeko Araudia onartzen duena.
- 8/2000 Lege Organikoa, abenduaren 22koa, Urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa aldarazia; eta betearazpen-arautegia, Espainian dauden atzerritarrei dagozkien eskubide eta askatasunak eta horien gizarteratzea arautzen duena.

- 14/2003 Lege Organikoa, 2003ko azaroaren 21ekoa, azaroaren 20ko 4/2000 Lege organikoa aldatzen duena, urtarrilaren 11koa, Espainiako atzerritarren eskubide eta askatasunei eta haien gizarteratzeari buruzkoa.

3 ETORKINAK ETORTZEKO ARRAZOI POSIBLEAK


Etorkinak Bergarara etortzeko arrazoiak beste edozein herritara joateko dauzkaten antzekoak dira. Etorkinak beraien herrialdetik beste herrialde batetara etortzen direnean, orokorrean, beraien egoera ekonomikoa hobetzeko izaten da, eta horrela beraien seme-alabei etorkizun hobea eskaintzeko.

Egoera ekonomikoa hobetzeko, lehenik eta behin, lana aurkitzea izaten da euren kezka nagusia. Horrela, Bergarara edo beste herri edo hiri batera joateko arrazoi nagusia lana izaten da. Hala ere, batzuek gure herrialdeko hainbat baldintza kontuan hartzen dituzte beren bizilekua gure artean finkatzeko. Alde batetik, etorkin batzuek kontuan izaten dute bere herrialdearekiko gertutasun geografikoa beraien bizilekua aukeratzeko, hala nola: marokoarrak. Beste etorkin batzuek, bestalde, bertan ezagutzen eta hitz egiten dugun hizkuntza bat, gaztelera, ezagutzen dutelako etortzen dira: Hego Amerikarrak, esate baterako.

4 BERGARAKO IMMIGRAZIOAREN DATUAK


4.1 GENEROAREN ARABERA

Grafikoan ikus daitekeen bezala, orokorrean etorkinen populazioan gizon eta emakume kopurua nahiko antzerakoa da.




4.2 ETORKINAK JATORRIAREN ARABERA

4.2.1 Herrialdeka



4.2.2 Kontinenteka




Etorkinen jatorriaren, bai herrialdearen bai kontinentearen, arabera taldekatzean hainbat berezitasun ikus daitezke. Hauek izango lirateke berezitasun aipagarrienak:


- Etorkin gehienak Europako kontinentetik datoz, eta ez, askok uste dugun bezala, Afrikatik edo Ameriketatik.
- Ameriketatik datozen gehienak Ertamerikakoak edota Hego Ameriketakoak dira.
- Asia kontinenteko etorkin gehienak herrialde batetik datoz: Pakistanetik. Asiako 74 etorkin badaude 72 pakistandarrak dira.
- Afrikarrak badaude, baina beste kontinenteekin konparatuz talderik txikiena da. Aipagarria da Afrikatik datozenetatik gehiengoa marokoarrak direla, zurrenik gertutasun geografikoarengatik.

4.3 GENEROA ETA JATORRIA KONTUAN HARTUTA

4.3.1 Jatorriaren araberako gizon eta emakumeak



4.3.2 Gizon eta emakumeak jatorriaren arabera




Arestian agertzen diren bi grafikoak behatuz gero, ikus daiteke etorkinen gehiengoak Pakistanetik, Marokotik eta Portugaletik datozela.

Etorkinen generoa eta herrialdea kontuan hartzen badugu, Bolivia, Argentina eta Bulgarian izan ezik, beste herrialdeetan gizonak dira gehiago emakumeak baino.


Hala ere, aipagarria eta interesgarria da pakistandarren kasua. Pakistandarrek etorkinen gehiengo izateaz gain beste berezitasun bat daukate: pakistandarren ia %96a gizonetzkoak dira.

ADINAREN ARABERA BANATUTA




Etorkinen adina kontuan hartzen bada, etorkin kopuru oso altua ugaltzeko garaian dago, hau da, 21 - 40 urte bitartean. Bestalde, deigarria da ere 11-15 urte bitarteko gazte etorkinetan dagoen hutsunea. Hala ere, hutsune honen zergatia zein den azaltzea zaila da.

4.3.3 Adina eta sexuaren arabera banatuta (etorkinen populazio piramidea)



4.4 BIZILEKUAREN ARABERA

4.4.1 Bizi diren kale eta auzoen arabera banatuta



Grafikoa ikusirik argi ikusten da etorkinak zein kaletan pilatzen diren. Hauek dira etorkin gehien dituzten auzo edo kaleak: Martoko kalea, Osintxu auzoa eta Zubieta kalea. Hala ere, beste kale edo auzo batzuek ere etorkin kopuru nabarmena daukate, hala nola: Aranerrika, Matxiategi, Simon Arrieta plaza, San Pedro, Zubieta eta San Antonio kaletan.

5 UDALAK ESKEINTZEN DITUEN ZERBITZUAK

5.1 GIZARTE ONGIZATEA

Zerbitzuak:

- Gizarte-prestazioen eta baliabideen berri eman, orientazioa eskaini, kudeatu eta tramitatu.
- Gizabanakoen edota familien desegituraketa arazoak aurreikusi eta tratatu.
- Elkarbizitzarako beste aukera batzuk eskaini.
- Gizarteratzeko taldeko baliabideak bultzatu eta dinamizatu.
- Arriskua eta marjinazioa bultzatzen duten arazoei aurre hartu.
- Langabetuei, LANGAIren bitartez, lana aurkitzen saiatu eta baita negozioak martxan jartzeko laguntza eskaini.
- Programa komunitarioak.

5.2 ARTXIBOA

Zerbitzuak:

- Informazioa eta erreferentzia.
- Kontsultak.
- Erreprografia (agirien kopiak hainbat formatutan).
- Hezkuntza eta kultura ekintzak.

5.3 EUSKARA

Zerbitzuak:

- Hizkuntza aholkularitza (euskararen erabilera bultzatu, izen abizenak euskal grafiaz jarri...).
- Testu zuzenketa eta itzulpenak.
- Dirulaguntzak (barnetegirako, ikastaroetarako...).
- Udal barruan eta udalerrian euskara normalizatzeko planak bideratzea.
- Udal Euskaltegia.
- Umeentzat euskara errefortzuak, Jardun elkartearekin batera.

5.4 HIRIGINTZA

Zerbitzuak

- Informatzea:
 - Hirigintza, Obra eta Ingurumenarekin zerikusia duten gaiei buruz.
 - Azpiegitura ezberdinen (gasa, argindarra, ura, zuntz optikoa, telefonia....) instalazioari buruz.
- Espediente Administratiboak, Proiektu Orokorrak (autopista, abiadura handiko trenak, saihebidetza, eta abar), Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioak eta Udalerriko Dokumentazio Topografikoa erakustea, azaltzea eta kopiak ateratzea.
- Lurren sailkapen eta eraikinen hirigintza-sailkapen eta kalifikazioari buruzko txosten teknikoak eta juridikoak egitea.

5.5 IDAZKARITZA

Zerbitzuak:

- Udalari buruzko informazio orokorra (zuzena edo telefono bidezkoa).
- Tramiteak egitea: dokumentuen sarrera eta irteera erregistroa, udal biztanleen errolda, hautesleen zerrenda, landa-lurren katastroaren kontsulta, langileen kontratazioa, edozein motatako ziurtagiriak, iragarki, ediktu eta jakinarazpenen eginbideak, taxiak, merkatua eta merkatu txikia, ibi edo pasabide iraunkorrak, elkarte zibilen Udal-Erregistroa, lurzoru publikoa okupatzeko baimenak (obretarakoak izan ezik), buletin ofizialen kontsulta eta udaleko organo ezberdinek hartutako erabakien jakinarazpena.

5.6 KIROLA

Zerbitzuak:

- Kirol instalazioen (Labegaraietako Kiroldegia, Udal Pilotalekua, beste pilotalekuak eta Ipintzako Futbolzelaia) informazioa eta erreserbak.
- Txapelketak, ikastaroak, kanpainak... antolatu.
- Udal kirol instalazioak erabiltzeko txartelen tramitazioa.
- Eskola kiroleko ekintza guztiak antolatu.

5.7 KONTU HARTZAILAZA – HAZIENDA

Zerbitzuak

- Aurrekontuaren kudeaketaren jarraipena eta kontrola.
- Udal zerbitzuen kudeaketa ekonomikorako aholkularitza.
- Udal tributuen ordenantzak.
- Udal tributuen erroldak eta kitapenak kudeatzea.
- Diru-sarrerak eta ordainketak kudeatzea.
- Diru-sarrera eta ordainketen kontabilitatea.
- Diru-fondoen eta fidantzen gordailua.
- Departamentuari dagozkion egiaztagiriak ematea.

5.8 KULTURA

Zerbitzuak

- Bergarako Udalak eta Mankomunitateak plazaratutako argitalpenez arduratzea.
- Hiriguneko jai ezberdinak antolatzea, auzoetako jaietarako azpiegitura eta dirulaguntzak bideratu.
- Antzerki emanaldi, musika kontzertu eta beste aktibitateen antolaketa.
- Erakusketak jarri nahi dituztenei aholkuak eman eta gestionatzea.
- Kultur talde eta elkarten lanak herrian azaltzeko azpiegitura jartzea eta entsegu, bilera eta ikastaroetarako Kultura etxea eta Zabalotegi aretoa lagatzea.
- Justo Garate Arriola beka: oinarriak, adjudikazioa, jarraipena eta argitarapena.
- Gazteentzako Informazio Guneko zerbitzuak: informazioa jaso eta zabaldu, txartelak tramitatu eta udaleku eta oporraldietan izenak ematea.
- Hezkuntza zerbitzuak ikasleentzat: zinea, antzerkia, erakusketak,...
- Zerbitzuen oinarriak, adjudikazioa eta jarraipena egitea (ludoteka, udalekuak...).

5.9 LIBURUTEGIA

Zerbitzuak:

- Liburu, CDak, bideo-zintak eta DVDak maileguan hartu.
- Irakurle txartela egin.
- Kontsulta eta erreferentzia.
- Liburutegien arteko mailegua (Koldo Mitxelena, Gasteizko Kultura Etxea (Peñaflorida) eta Autonomia Erkidegoko beste liburutegi batzuk).
- Internet zerbitzua.

5.10 MUSEOLOGOA

Zerbitzuak:

- Errege Seminarioko Museoa.
- Ondare Artistikoa.
- Turismo Bulegoa: herriko informazio orokorra ematea eta Euskal Herriko informazio turistikoa banatzea.

5.11 UDALTZAINGOA

Zerbitzuak

- Herritarren segurtasuna.
- Trafikoaren antolamendua.
- Udal ordenantzen kontrola.
- Babes zibila.

6 EREMU EZBERDINETAKO DIAGNOSIA

6.1 HARRERA ETA ASISTENTZIA SOZIALA

Eremu honetan Bergarako Udalak eta inguruko agente edo erakundeek etorkinen harrera egiteko, hau da, etorkinek izan ditzaketen lehen mailako, bizi irauteko, behar eta arazoei aurre egiteko dituzten eta erabiltzen diren zerbitzu eta baliabideak aztertu nahi dira.

6.1.1 Eremu honetan etorkinak izan ditzakeen beharrak

Etorkinak gure herrira etortzean izan ditzaketen lehen mailako beharrak honako hauek izan daitezke:

- Lo egiteko tokia
- Elikadura
- Jantziak
- Osasuna
- Erroldatu
- Paperak lortu

6.1.2 Udaleko zein zerbitzu erabiltzen dituzte eremu honetan

Etorkinak izan ditzaketen lehentasunezko beharrak kontuan izanik, Udalak era honetara erantzuten die behar horiei:

- Lo egiteko lekuari dagokionez, esan daiteke Bergaran ez dagoela inolako pisu, aterpe edota etxerik etorkinentzat harrera moduan erabiltzeko moduan. Edonola, Bergarara datozen etorkin gehienek jada lo egiteko leku bat izaten dute: herrikide, lagun edo familia kide baten etxean.

- Elikaduraren kasuan, ibiltariei edo beharra dutenei bokadilo bat jateko aukera ematen zaie. Ticket bat ematen zaie eta zaharren egoitzara bidaltzen dira bokadiloa eskatzera. Hala ere, pertsona bakoitzak urtean bokadilo bat jateko aukera besterik ez dauka.
- Jantziei dagozkenez, Udalak Caritasera bidaltzen ditu, Caritasek jantzitegia baitauka.
- Osasunari dagokionez, Gizarte Zerbitzuen bitartez, etorkinei osasun txartela tramitatzen die. Horrela, etorkinek osasun zerbitzuak erabiltzeko aukera izaten dute. Etorkinei ematen zaien osasun txartela unibertsala da, eta txartela lortu ahal izateko etorkinak erroldatu egin behar dira.
- Udalaren esku ez dago etorkinen egoera legezko bilakatzea. Hala ere, Udala, Ongizate Zerbitzuko asistentzia sozialaren bitartez, HELDU eta SOS ARRAZAKERIArekin jartzen da kontaktuan. Bi erakunde hauek laguntzen diete etorkinei paperak lortzeko eginbeharrekoak egiten. HELDU erakundera bidaltzen diren kasuak jada bideratuak dauden kasuak izaten dira; SOS ARRAZAKERIARA, aldiz, hain bideratuta ez dauden kasuak deribatzen dira.
- Gizarte Zerbitzuen bidez, etorkinek dirulaguntzak¹ jaso ditzakete, beste herritar guztiek bezala. Etorkin batzuen kasuetan, dirulaguntza horiek bizi irauteko beharrezkoa izaten dituzte. Hala ere, dirulaguntzak jaso ahal izateko etorkinek hainbat baldintza bete behar dituzte, beste edozein bezala, (errolda epeak, egiten duten lan mota..). Baldintza hauek betetzen ez badituzte, ez dute dirulaguntzarik jasotzen.
- Etorkinak Ongizate Zerbitzura datozenean Gizarte Ongizateko langileak laguntzen, informatzen eta orientatzen saiatzen dira.

¹ Urte honetan, adibidez, denera 61 familiek jaso dute GGD (IMI), horretatik 8 atzerrian jaiotakoak dira, hau da, GDD jaso duten familien % 13a atzerrian jaiotakoak dira. GLDri (AES) dagokionez, aurtan 55 familiek jaso dute dirulaguntza hori, horietatik 12 familia atzerrian jaiotakoak dira; beraz, GDLa jaso dutenen %21.8a atzeritarrak dira jaiotzez.

Orokorrean, esan daiteke Udalean etorkinentzat ez dagoela harrera planik eta etorkinen lehen beharrei erantzuteko baliabide berezirik. Horrela, asistentzia sozialean etorkinei beste herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzu berberak eskaintzen zaizkie. Dirulaguntzak jasotzeko etorkinek, beste herritarren bezala, baldintza batzuk bete behar dituzte (lan mota, errolda epeak...). Hala ere, aipatzekoa da, azkenaldian, osasun txartelak lortzeko tramiteak asko ugaritu direla.

6.1.3 Kanpo erakundeek egiten dutena

Caritas

Harrera eremuan, bereziki hasierako beharrei erantzuteko orduan, herrian etorkinekin lanean diharduen udal kanpoko erakunde bakarra CARITAS da.

Erroldatzeko eta paperak lortzeko egin behar dutenari buruz informatzen eta orientatzen ditu. Gainera, etorkinei HELDU erakundera joaten laguntzen die, askotan oso galduta sentitzen dira eta. Horretaz gain, abokatuen laguntza ere izaten dute Caritasen eskutik, abokatu hauek beraien zerbitzua doan eskaintzen baitute.

Etorkinek diru laguntzak jaso edo lana topatu arte, beraien dituzten lehen mailako beharrak erantzuten saiatzen dira, hau da, harrera egiten zaie hainbat aspektutan: ekonomikoki, pertsonalki, hezkuntza mailan, etxebizitza eta lana aurkitzeko orduan...

Beharra duten etorkinei, zein beste edonori, arropak edo jantziak ematen dizkiete. Altzariekin ere antzerako zerbitzua eskaintzen da.

HHI - EPA

HHIren kasuan, esan daiteke HHIk ez duela etorkinen lehen mailako beharrak zuzenean erantzuteko baliabiderik, ez baita beraien funtzioa. Hala ere, HHIra doazen etorkin etorri berriei, harrera moduko bat egiten diete. Harrera honetan,

herria erakusten eta bertan mugitzen irakasten die; udaletxea, anbulatorioa, Caritas, azoka eta beste zenbait leku baliagarri non dauden erakusten dizkiete.

Hau da, eguneroko bizitzan eta izan ditzaketen beharrei erantzuteko joan behar diren lekuak non dauden irakasten zaie.

6.2 LANA

6.2.1 Egiten dituzten lanak

Egoera ezlegalean daudenak

Etxeko zerbitzuetan: haurrak edo nagusiak zaintzen. Lan mota hau, normalean, paperik gabe dauden emakumeek betetzen dute. Lanarekin batera etxebizitza lortzen dute. Lan mota hauek, kontratu gabe eta gizarte segurantzarik gabe egiten dituzte. Hala ere, udal kanpoko bitartekari bat dago familia eta emakume hauen artean. Bitartekari honek emakume hauen lan baldintzak finkatzen eta negoziatzen ditu familiarekin.

Egoera legalean daudenak

Ostalaritzan: tabernetan lan egiten, adibidez.

Eraikuntzan

Lantegietan

Azoketako postuetan

6.2.2 Eremu honetan aurkitzen dituzten zailtasunak

Etorkinentzat paperak izatea baldintza garrantzitsua da lan bat aurkitzeko orduan. Paperak ez edukitzeak lan aukerak murrizten dizkie; murrizteaz gain, kontratu gabe eta esplotazioa posible den lanetan jardutea besterik ez dute. Ondorioz, inolako gizarte segurantzarik gabe ari dira lanean, horrek suposatzen dezakeen ondorioekin.

Arestian aipatu bezala, paperik gabeko lanetan emakumeak badaukate non lan egin; gizonak, aldiz, ez.

Bestalde, paperak dituen etorkinak beste edozeinek izan ditzakeen zailtasunak aurkitzen ditu. Hala ere, etorkin batzuen kasuan, hemengo lan ohituretara (adibidez, ordutegia, gaixotzean zer egin behar den...) eta bizitza estilora egokitu behar dira, eta hori askotan zailtasun bat izaten da beraientzat.

Arazo hauetaz gain, batzuetan hizkuntza ere arazoa izaten da.

6.2.3 Udaleko zerbitzuek egiten edo eskaintzen dutena eremu honetan

Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak, orokorrean, paperak dituztenei zuzentzen dira. Paperik ez duten kasuetan zaila izaten da laguntzea, adibidez: ikastarotako praktikak egitea.

Horrela, paperak dituztenei, Udalak herritar guztiei eskaintzen zaizkien zerbitzu berdinak eskaintzen dizkie: langabetuei informazio laborala eskaini, LANGAIIn apuntatu, formazio okupazionalerako ikastaro edo ikasketetaz informatu, negozio propioak martxan jartzen lagundu...

Etorkinek, normalean, honako zerbitzu hauek erabiltzen dituzte: ikastaroak, Hezkuntza Okupazionala, Lanbide Hastapena eta negozio propioak jartzeko aholkularitza.

6.2.4 Kanpoko erakundeek egiten dutena

Caritas

CARITASek, etorkinei, bereziki paper gabeko emakumeei, lana aurkitzen laguntzen die, etxeko laguntzaile (interna) moduan (emakumeak badira) haurrak edo nagusiak zaintzen. Etxe-laguntzaileen eskaintza eta eskaera gestionatzen dute.

Hala ere, lanean hasi aurretik formakuntza saioak ematen dizkiete; sukaldaritza, hirugarren adineko higiena eta gaixotasunak, edo/eta aldaketa posturalak

bezalako gaiak jorratzen dituzte. Horrela, lanean hasi aurretik, gutxienezko formakuntza ematen saiatzen dira.

Horretaz gain, etorkin hauen lan baldintzak ere adosten dituzte familiekin. Caritas, familia eta etorkinen artean, sortuko den erlazio laboralean, lotu beharreko bete behar guztien gainean dago; lan ordutegiak, atsedeen orduak, soldata, ea.

Gainera, sortu daitekeen edozein konfliktu laboralaren epaile izaten dira, edozein zalantza juridikoa sortuz gero ere bi abokatuen laguntza dute.

Horrela, sektorearen komenio kolektiboan jasotakoarekin bat egiten dute lan, etorkinek gutxienezko soldata jasoz. Honekin gainera, herriko beste edozein langileri ez zaio konpetentzia ezlegalik egiten.

Dena den, Caritasen etorkinei hainbat baldintza jartzen zaie lana aurkitzen lagundu aurretik:

- Haurrak badituzte, lan orduetan umeak ondo zainduta egon behar dira.
- 18 urte baino gehiago izatea eta ahal dela 25 urte arte ikas dezatela saiatzen dira.
- Honetaz aparte, gutxienezko azterketa mediku bat egiten zaie.

Momentu honetan mugitzen duten etorkin kopurua oso handia dela aitortu beharra dago, dirudienez 200 pertsonatik gora ari baitira Caritasekin elkarlanean.

Caritasek guzti hau erregularizatzeko asmoa duela argitu behar da, epe ertainean kooperatiba bat sortzeko asmoa du, Arrasateko Alecop kooperatibaren eredua hartuta, eta horrelako erakunde batek izango lukeen egitura osoa osatuz. Honetaz aparte Caritasek bere egituran aldaketa inportanteak egiteko asmoa du.

HHI - EPA

HHIk ez die etorkinei lana eskaintzen edo aurkitzen laguntzen. Hala ere, etorkinek hizkuntzarekin arazoak dituztenean, HHiko irakasle eta arduradunengana jotzen dute beraien partez hitz egin dezaten, telefono deiak oso garrantzitsuak izaten baitira.

6.3 ETXEBIZITZA

Esan daiteke, etorkin askok Bergarara etortzen direnean jada badaukatela lo egiteko leku bat. Askok herrikide, lagun edo familiartekoen etxean egoten dira, beraiak pisu bat alokatu arte. Beste etorkin batzuk, bestalde, egiten duten lanagatik, nagusiak zaintzeagatik, pertsona nagusien etxean egiten dute lo.

Bestalde, beste etorkin batzuk alokatutako etxeetan bizi dira. Kontuan izan behar da, askotan, etxeen jabeek oztupoak jartzen dizkietela etorkinei etxeak alokatzeko orduan; ordaindu ezingo duten edota pisua narras utziko duten beldur izaten omen dira.

Etxebizitzetara dagokionez, esan daiteke etorkin gutxi direla etxe baten jabe. Hala ere, kontuan izan behar da, bertako herritarrok ere zailtasunak izaten ditugula etxe bat erosteko orduan. Beraz, ez da arraroa etorkinak etxeen jabe ez izatea.

6.3.1 Udalak eremu honetan eskaintzen duena

Udal zerbitzuek berriz, gai honen inguruan informatu eta orientatu besterik ezin dezakete egin.

6.3.2 Kanpo erakundeek egiten dutena

CARITASek etxebizitzetara dagokionez, esan daiteke ez duela funtzio berezirik etorkinentzat pisua aurkitzerako orduan, hau da, etorkinei ez die pisurik aurkitzen. Hala ere, eta aipatu bezala, CARITASen bitartez hainbat etorkinek bizitzeko leku bat aurkitzen dute, zaintzen duten nagusiaren etxea hain zuzen ere.

HHIk bestalde, etxeak alokatzeko orduan etorkinei laguntza eskaintzen die, bereziki telefonoz deitu behar dutenean. Hau da, noizbehinka etorkinen partez alokatu nahi duten etxeen jabeek deitzen diete.

6.4 HEZKUNTZA

6.4.1 Haur eta gaztetxoak

Haur eta gazteen hezkuntzan kontuan izan beharko da Udaleko Hezkuntza Sailak egiten duena. Horretaz gain, ikastetxeek etorkinen harrera eta integrazioa nola eramaten duten aurrera aztertzea garrantzitsua da, eskolan egiten denak eragina baitu haurraren eta baita beraien integrazioan ere.

Haur eta gazte etorkinek hainbat zailtasun izaten dituzte. Hala ere, haur txikiek gazteek baino arazo gutxiago dute: alde batetik, gazteentzat hizkuntza ikastea zailago izaten baita (haur txikiek, aldiz, era naturalagoan ikasten dute); eta bestetik, gaztetxoek beren herrialdean izandako esperientzia eskolarra ere kontuan izan behar delako. Hau da, kontuan izan behar da gaztetxoek dakarten aurrezagutza. Aurrezagutza hau beste ikasleenaren antzerakoa izan daiteke; baina gertatu daiteke, duten ezagutza maila bere adinerakoa dena baino baxuagoa izatea.

Horrela bada, ikastetxeak ikasle etorkin horiei izan ditzaketen zailtasunak gainditzen lagundu behar die, bai komunikazio arazoetan eta baita dituzten ezagutza arazoetan ere.

6.4.1.1 Udaleko hezkuntza saila

Ikastetxeei adostutako zenbait ekintzen antolakuntzan laguntzen zaie.

Bestetik, urteak direla, Ikastetxe eta Udaleko Prebentzio zerbitzuak elkarlanean arituta, zenbait arlotan prebentzio lan garrantzitsua gauzatzen ari da.

6.4.1.2 Hezkuntza formala

Garrantzitsua da ikastetxe bakoitzean etorkinei harrera nola egiten zaien ikustea. Hau guztia kontuan izanik, atal honetan zera aztertuko dugu: matrikula nola egiten duten, haurrari eta gurasoei egiten zaien harrera, bertako hizkuntzak nola irakasten zaizkien, kultur artekotasuna bultzatzeko egiten diren ekimenak...

6.4.1.2.1 Eskola bakoitzean eskolaratutako ikasle atzerritarren kopurua

ESKOLA	KOPURUA
Aranzadi Ikastola	12
San Martin Herri Eskola	19
Ipintza Institutua	12
Mariaren Lagundia Ikastola	14
TOTALA	56

6.4.1.2.2 Matrikulazioa eta epez kanpoko matrikulazioa

Etorkinek beraien haurrak eskolan matrikulatzeko orduan, bi garai ezberdinetan egiten dituzte: matrikulazio garaian (epe barruan) eta epez kanpo.

Epez kanpo matrikulatzen direnak kurtsoan zehar etortzen diren etorkinak izaten dira.

Orokorrean, etorkinak eskola publikoan matrikulatzen dira, azken finean, merkeena baita. Gainera, eskola publikoak epe barnean matrikulatzen diren ikasle guztiak onartu behar ditu. Beraz, epearen barne matrikulatzen badira etorkinek beraien haurrentzat eskola aukeratu dezakete.

Hala ere, San Martin Herri Eskola (eskola publikoa), etorkin kopurua asko gehitzen zihoala ikusita Udalarekin, Gizarte Ongizate zerbitzuarekin, harremanetan jarri zen. Eskola publikoa merkeagoa izatean etorkin gehienak bertara joaten zirela ikusita, eskolak "getto" bilakatzeko arriskua zeukala ikusi baitzuten.

Eskolak arazoa planteatu zion Udalari, eta Udalaren eta beste eskolen arteko bilerak egin ziren gai honen inguruan. Teorikoki, etorkinak herriko eskola ezberdinetan banatzea izango litzateke helburua.

Beraz, azkenean, ikastetxeak ez ziren akordio batera iritsi. Ondorioz, matrikulazioa epez kanpo egiten dutenean, delegazioak erabakitzen du haurra zein eskolara joan behar den; noski baldintza batzuk kontuan hartuta (bizilekua, anaiak ez banantzea, ea).

6.4.1.2.3 Etorkin berriak eskolan: ematen dituzten pausoak

Haurrak eskolan matrikulatu ondoren, orokorrean ikastetxeek pausu batzuk jarraitzen dituzte. Ikastetxe batzuetan Berritzegunek emandako mintegietatik sortutakoa 'Harrera planak' dituzte. Edonola ere, ikastetxe guztiek antzerako pausuak ematen dituzte.

Orokorrean, hauek dira ikastetxeek jarraitzen dituzten pausuak:

1. Zuzendariak gurasoekin lehen bilera egiten du. Bertan, eskolari buruzko oinarrizko informazioa emango zaie (eskolako ordutegia, egutegia, garraioari buruzkoak...). Dirudienez, orokorrean, ez da egoten hizkuntza arazorik guraso eta zuzendariaren artean.
2. Haur atzerritarra zein mailatan sartu erabakitzen da. Salbuespenak kontuan izanda, orokorrean, adinagatik dagokion mailan jartzea gomendatzen da. Hala ere, erabaki horretan hainbat baldintza kontuan hartzen dira: jatorriko herrian egindako ikasketak, hizkuntzen ezagupena, ikaslearen egoera pertsonala...)
3. Haur atzerritarren ikaskideak beraien etorrerarako prestatu: herrialdea kokatu, hizkuntzak eta ohiturak zeintzuk diren azaldu, laguntzeko irizpideak eman...
4. Haurraren eskolatze prozesua normalizatzeko indartze neurriak erabaki:
 - a. Ikasgai ezberdinetan izan ditzakeen beharrak identifikatu.

- b. Itzultzailearen beharra baloratu eta beharra badago delegazioari eskatzen zaio (hala ere, eskakizun guztiak ez dira onartzen).
- c. Hizkuntza berriaren ikaskuntzarako ikastetxeak hizkuntza errefortzuak antolatzen dituzte.

Bestalde, ikastetxeak, ahal duten neurrian eta dituzten baliabideen arabera, kultur aniztasuna edota kultur artekotasuna bezalako gaiak lantzen saiatzen dira, bereiziki ikaslearen gelan bertan. Ikastetxe denak gainera, ikasgaietan haur etorkinen jatorria kontuan hartzen eta ikasgaietan barneratzen saiatzen dira, ahal den neurrian behintzat.

6.4.1.2.4 *Ikastetxeek etorkinen integrazioan lortutako emaitzak*

Esan daiteke ikastetxeek lortutako emaitzak baikorrak direla. Orokorrean, haur gehienak integrazio prozesuan daudela esan daiteke; hemengo hizkuntza/k (gaztelera, euskara edo biak) ikasten ari dira, edo jada ikasi dute eta integratuak daude.

Hala ere, kasu guztiak ez dira berdinak. Horretaz gain, haurraren jatorriaren arabera ikasteko eta lana egiteko jarrera ezberdina da, baita ere irakasteko erabiltzen den hizkuntza ikasteko orduan ere. Haurrak bere ikasketen aurrean duen jarrerak eragina dauka lortzen dituen emaitzetan. Horretaz gain, gehienek ez dute euskara ikasi nahi izaten, gaztelera jakitean nahikoa dela uste baitute.

Haurrak hizkuntzarekiko duen jarrera baloratzeko orduan hainbat baldintza edo aldagai kontuan hartu behar dira: jatorrizko herrialdeko ikastetxean exijitzen ziotena, gurasoek lanarekiko eta hizkuntzarekiko duten jarrera, gurasoak norekin erlazionatzen diren, herrian daramatzan urteak, herrian gelditzeko daukaten itxaropena...

Beraz, orokorrean, ikastetxeetan lortutako emaitzak nahiko baikorrak dira. Dena den, eskolatze prozesuan, integrazioan eta jarreran hainbat aldagaik parte hartzen dutenez, ikasle etorkinen emaitzak ez dira soilik ikastetxearen kontua izaten.

6.4.2 Gazte eta helduak

6.4.2.1 HHI-EPA-n egiten dutena

Erakunde honetan izena ematen duten etorkinei, lehenik eta behin, harrera moduko bat egiten zaie. Harrera honetan herria erakusten eta bertan mugitzen irakasten zaie (udaletxea, anbulatorioa, Caritas, azoka eta beste zenbait leku non dauden eta baliagarriak izango zaizkienak non dauden erakusten zaie). Normalean, herria erakusterakoan irakasle bat egoten da.

Erakunde honetara, orokorrean, gazte eta helduak hizkuntza ikastera joaten dira, HHIIn hizkuntza, gaztelera hain zuzen ere, irakasten baita. Hala ere, euskara ere irakasten da, nahiz eta euskarazko oinarrizko maila izan bakarrik.

Gazteleraren irakaskuntzari dagokionez, esan behar da iraganean talde bakarra zegoela; gaur egun, berriz, bi talde daude: alfabetatuak eta alfabetatu gabeak. Bestalde, kurtsoan zehar datozenentzat Harrera taldea dago. Harrera talde honetan etorkina beste taldean sartzeko prestatzen dute, hau da, harrera gelan egoten dira besteen hizkuntza maila antzerako bat lortu arte.

Bestalde, hizkuntza irakasteko erabiltzen diren metodoak honako hauek dira: liburuak eta zintak, posterrak eta baita ekintzazko (tareas) metodoak ere. Metodo hauen bitartez eguneroko bizitzan beharrezkoak diren hitz eta esamoldeak ikasten dituzte.

Gainera, gida baimena prestatzen ere laguntzen diete, baina azterketa teorikorako bakarrik. Gida baimeneko azterketa teorikoa bideoz prestatzen dute, hau da, ez dute liburua irakurtzen, baizik eta bideoa ikusi. Gida baimena prestatzen den bitartean hizkuntza ere irakasten eta ikasten da. Zeren eta gida baimena lortzeko hizkuntzaren ezagutza minimoa eskatzen zaie eta horretarako hizkuntza zertifikatu bat eskatzen diote azterketa teorikoa egiteko, bestela ezin dira azterketara aurkeztu. HHIIn hizkuntza zertifikatu hori ematen dute.

Ikastaro bat edo beste ere antolatzen da, adibidez, etxeko lanetako ikastaroa hemengo ohiturak eta janaria ezagutzeko, askotan ohiturak oso ezberdinak baitira. Gainera, baliagarria izan liteke etorkinentzat, askok etxeetan edo ostalaritzan lan egiten baitute.

Hizkuntza ikasteaz gain, klasean harremanak eta adiskideak egiten dituzte, bai bertakoak eta baita etorkinen artean ere. Beraz, klase hauek lagunak egiteko eta sozializatzeko ere balio dute.

6.4.2.2 Caritasen egiten dutena

Caritasek Jantzitegi Tailerra sortu zuen 1998 urtean, nolabaiteko zailtasunak (pertsonalak, ekonomikoak edota familiarrak) zituzten emakumeentzat, tailer honek emakume hauei irteera okupazional bat eskaintzen baitie, bai bertakoentzat baita etorkinentzat ere.

Tailer honek emakumeei irteera okupazional bat emateaz gain beste hainbat gauza garatzen laguntzen die: auto-estimua eta jarraibide pertsonalen garapena, lan ohiturak hartzea eta jokabidezko jarraibideak garatu, besteak beste. Azken finean, emakume hauekin hezkuntza aspektuak lantzen dira. Horretaz gain, helduei hizkuntza ikasten laguntzen zaie.

Tailer honek, emakume askori, lan munduan sartzeko balio die. Hau da, hemen lan egin ondoren beste lan bat aurkitzen dute.

6.5 KIROLA

Udaleko kirol zerbitzuari dagokionez, etorkinek beste herritar guztien aukera berak dituzte kirol zerbitzuko instalazio, ikastaro, txapelketa eta ekintzetan parte hartzeko, haur, gazte zein helduek.

6.5.1 Erabiltzen dituzten zerbitzuak

Kontuan izanda bertakoen aukera berberak dituztela, etorkinek udaleko kirol zerbitzu gutxi batzuk erabiltzen dituzte. Horrela, kirol instalazioaren erabilerari dagokienean,

esan daiteke etorkinek, bereziki pakistandarrak, izan direla hauetan interes gehien jarri dutenak. Horrela, pakistandarrek Ipintzako futbol zelaia erabiltzen dute kriketean jokatzeko.

Udal kirol instalazioak erabiltzeko txartelen tramitazioari dagokionez, etorkinek ez dute erabiltzen, nahiz eta txartelaren inguruan galdezka joaten diren. Beraz, esan daiteke zerbitzu hau etorkinek ez dutela erabiltzen, dirudienez txartela egitea garestia delako.

Eskolako Kiroletako ekintzetan haur etorkinek parte hartzen dute, guztiak ez badaude ere.

Udal Kirol Zerbitzuak atzerritarren kirolak, kriketa adibidez, herrian zabaltzea nahi ditu. Horretarako, Kirol Zerbitzua ideia hau garatzen hasi da.

6.6 EUSKARA

6.6.1 Udalak eskaintzen dituen zerbitzuak

6.6.1.1 Udal euskaltegian

Orain arte behintzat, Udal Euskaltegian ez dute ezer berezirik gertatuta etorkinak euskalduntzeko; beraz, Udal Euskaltegiak etorkinei Bergarako biztanle bat gehiago izango balitz bezala irakatsiko die euskara, berezitasunik gabe. Dena den, HABEK prestatu du 60 orduko modulu berezi bat eta datorren ikasturtean eskaintzeko asmoa du.

6.6.1.2 . Euskara zerbitzua

Udaleko Euskara Zerbitzua herriko ikastetxeekin harremanetan jarri da eta 5-16 urte bitarteko haur etorkinentzat euskara errefortzuak jarri ditu martxan. Ekimen honen helburua ume etorkinekin ikastetxean egiten den lana osatzea eta beraien euskara maila hobetzea da. Ekimen hau Udalak antolatu eta koordinatzen du baina Jardunek eskaintzen du, udalaren dirulaguntzaren bidez.

Proiektu hau inguruko hainbat herritan dago martxan, Oñatin eta Arrasaten, esaterako. Proiektua jolas eta tailerretan oinarritzen da, errutinak eta aditzak ere lantzen dira. Asteaz zehar egunero ordubeteko saioak izaten dituzte haurrek. Proiektu honekin ume etorkinen ahozko euskara lantzen dute, naturalki erabili eta asimilatzen dute. Orokorrean emaitzak onak dira. Gehienak euskara eskolan eta errefortzu saioetan erabiltzen dute bakarrik.

Bestalde, normalean beraien artean, hizkuntza bera hitz egiten dutenen artean, beraien ama hizkuntzan hitz egiten dute; baina hau normalizat jotzen da. Hala ere, talde handian daudenean euskaraz hitz egiten saiatzen dira.

6.6.2 Kanpo erakunde edota agenteetan

6.6.2.1 Jardun euskara elkarteak

6.6.2.1.1 Haur etorkinentzat euskara errefortzuak

Aurretik esan bezala, Udalak antolatutako eskolaz kanpoko errefortzuak eskaintzen dizkiete 5-16 urte bitarteko haur etorkinei.

6.6.2.1.2 Aisialdi taldea

Jardunen helburua Bergaran euskal giroa berpiztea, kultur ekintza euskaldunak bultzatzea, euskaltzale guztien indarrak batzea eta euskararen erabilera sendotzea da.

Helburua zein den kontuan izanda, gaztetxoek artean euskararen erabilera bultzatzeko aisialdi taldea sortu zuten. Jardunek dioenez, 12-14 urteko gazteek bereziki gaztelaraz hitz egiteko joera azaltzen dute. Jardunek adin horretan euskaraz funtzionatzera bultzatu nahi ditu.

Gaur egun, 9-16 urteko haur edota gaztetxoekin dihardu lanean. Haurrak eta gaztetxoak edadearen arabera bi taldetan banatzen dira: 9-11 urte bitartekoak eta 12-16 urte bitartekoak.

Aisialdi taldean parte hartzen duten etorkinei dagokionez, haur etorkin bakarra dago. Jardunentzat etorkinen gaia berria bada ere, hauek integratu nahi dituztela argi dute.

Gauzak horrela, etorkinak hurbildu ahala erabakiak hartzen joango dira. Dena den, arduradunaren iritziz, hobe da lehenengo eskolan integratzea eta gero aisialdian. Horrela, jada euskararen oinarritzko ezagutza edukiko du eta aisialdian euskara erabiltzeko aukera izango du.

6.6.2.2 Ikastetxeetan

6.6.2.2.1 San Martin herri eskolan

Eskola honetan Eibarreko Berritzegunean, 2003-2004 ikasturtean zehar, ikasle etorkinekin hizkuntzaren trataera nola landu aztertu eta landu zuten Eskoriatza eta Mutriku bitarteko hainbat ikastetxek. Mintegi honetan ikasle etorkinekin hizkuntza lantzeko orientabideak ikusteko aukera izan zuten. Horrela, Hizkuntza Trataera Ikasle Etorkinekin izeneko txosten bat osatu zuten etorkinekin hizkuntza, kasu honetan euskara, irakatsi eta lantzeko.

Edonola ere, Haur Hezkuntzako lehen zikloan ez da ezertxo ere egiten ikasle atzerritarrekin, ikasleek era naturalean ikasten baitute. 2. zikloan eta gerora, ikasle etorkinak D ereduan sartzen dira. Euskara ematen dute baina ez zaie kalifikatzen. Ziklo honetatik aurrera Hizkuntza Trataera Ikasle Etorkinekin izeneko dokumentuko orientabideak erabiliko dituzte irakasteko.

6.6.2.2.2 Aranzadi ikastolan

Haur Hezkuntzan ezer berezirik antolatuta ez badago ere, bazkaltzen gelditzen diren haurrekin hizkuntza lantzeko aprobeztatzen dute.

Lehen Hezkuntzan, bestalde, gelan eta gelatik kanpo ematen zaie errefortzua. Egunero ordu eta erdiko errefortzua dute ordu erdiko hainbat saiotan banatuta, baita gela barneko errefortzua eta gelatik kanpoko ere. Maila honetako ikasleetan aurrerapena nabariagoa dela aipatu beharra dago.

Gelaz kanpoko errefortzuan, haurrak gelatik ateratzen dira eta libre dauden gelalara joaten dira: haur hezkuntzako gelara, ordenadore gelara... jolasen bidez hiztegia lantzen saiatzen dira.

Gela barnean dagoenean, errefortzutako irakaslea gela barnera sartzen da eta jasotzen ari den ikasgaiari laguntza ematen dio, hau da, beste ikasleek egiten dutena egiten du baina laguntzarekin. Guzti honetan haurren aurre-ezagutza ere kontuan izan behar da, horrela, errefortzua era batekoa edo bestekoa izango da.

6.6.2.2.3 Ipintza institutuan

Ipintza Institutura datozen ikasle etorkinak B ereduan sartzen dituzte, eta oso harreman gutxi daukate D ereduarekin. B ereduan, ikasgai batzuk gaztelaraz eta beste batzuk euskaraz ematen ari dira.

Hala ere, edatea dela eta, ikasle gehienak motibazio gutxi daukate euskara ikasteko; beraienez, azken finean, beste zailtasun bat baita.

Edonola ere, euren ustez, etorkinak D ereduan sartzen saiatu beharko lirateke. Horretaz gain, DBHn euskara errefortzuak jartzea planteatzen ari dira, baina horretarako euskarako irakasle bat behar dute horretara dedikatzen dena.

6.6.2.2.4 Mariaren Lagundian

Ikastetxean ikasten hasten den ikasle etorkin berri orori, 16 orduko hizkuntza errefortzua eskaintzen diote eskolaratze prozesuan laguntzeko.

Ikaslearen berezitasunak eta ikasketa maila aztertu ostean, beharrezkoa ikusiz gero, ikasle atzerritarra adinez dagokiona baino kurtso bat beherago aritzea aurreikusten dute.

Honelako ikasleen berezitasunak kontuan hartzen dituzte beti eta ikaslearekin malgutasun apur batez jokatzeko saiatzen dira.

Aportazio bezala Udalak, Jardunen bidez, eskaintzen duen euskara errefortzua klase orduetan izatea egokiagoa dela uste dute.

Aipatu, ikastetxe gehienek, aplikagarri denean, 'Euskara salbuespena' erabiltzen dutela. Hau da, Euskara ez da oztopoa izaten ikaslea kurtso batetik bestera pasatzeko.

6.6.2.3 HHI-EPA

Orokorrean, etorkin helduei gaztelera irakasten zaie. Hala ere, etorkinek aukera daukate HHIIn euskarazko oinarrizko maila lortzeko.

6.6.2.4 Caritas

Caritasek katekesia eskaintzen die herriko haur guztiei. Haur etorkin asko eta asko etortzen dira, horrenbeste dira une honetan komunikatzeko hizkuntza (euskara kasu honetan) arazo bat bihurtu dela.

6.7 KULTURA

Etorkinen gizarteratzea, sarritan, asimilazioarekin nahasten da; hau da, gure gizartean integratu daitezten, beraien kultura eta hizkuntza kontuan hartu gabe.

Dударik gabe, etorkinen gizarteratzea ez da bakarrik eurei bertako hizkuntza eta kultura erakutsi eta eurak hori onartu eta bertako partaide izatea, hau da, ez da norabide bakarreko transmisio soil bat. Bertakook ere atzerritarren kultura ezagutu, onartu, errespetatu eta elkarrekin bizitzen saiatu behar dugu. Beste era batera esanda, kulturen arteko benetako elkartrukatzea ematen denean lortuko da etorkinen gizarteratze osoa edota kultur artekotasuna.

6.7.1 Udalak gai honen inguruan egiten duena

Udalan, orain arte behintzat, ez da ekimen berezirik egin kultur artekotasuna lantzeko edota Bergaran dauden etorkinen kulturak ezagutzera emateko.

Esan beharra dago Kultura zerbitzuak esparru hau garatzeko asmoa duela.

6.7.2 Kanpo erakundeek egiten dutena

Kanpo erakunde eta agenteei dagozkenez, ikastetxeak dira kultur artekotasunaren eta kultur aniztasunaren inguruan gehien egiten dihardutenak. Hala ere, kultur artekotasunaren gaia berria izatean, oraindik gauza asko dago egiteko.

6.8 BESTE EREMU BATZUK

6.8.1 Udal barnean

6.8.1.1 Liburutegia

Liburutegiko zerbitzu guztiak daude etorkinen eskura. Etorkinek, paperdunak edo paper bakoak izan, beste herritarren aukera berbera daukate liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko. Esan beharra dago, liburutegian dagoen material gehiena euskaraz eta gazteleraz dagoela, nahiz eta ingelerazko zerbait ere badagoen.

Etorkinek, momentu honetan, ez dute liburutegia asko erabiltzen. Lehen, atzerritar asko interneten ibiltzeko etortzen zen, baina, orain, KZ Gunea jarri dutenetik bertara joaten dira, dohainik baita.

6.8.2 UDAL KANPOKO ERAKUNDEA

6.8.2.1 KZ Gunea

KZ Gunea Eusko Jaurlaritzak eratu zuen herritarrek ordenagailuak ezagutzeko eta erabiltzen jakiteko. Bertan, nabigazio ikastaroak eta mintegiak eskaintzen dituzte hainbat gairen inguruan. Horretaz gain, interneten dohainik nabigatzeko aukera ematen du, nahiz eta "Txat"-a erabiltzen ez utzi. Bestalde, zerbitzua erabiltzeko 16 urte baino gehiago eduki behar dira.

Etorkinek KZ Gunea erabiltzen dutela esan daiteke, beraien jatorrizko herrialdeko familiarekin komunikatzeko normalean. Nahiz eta etorkin batzuk ikastaroetara ere apuntatzen diren.

7 ETORKINEK, EGOERA LEGALAREN ARABERA, ZERBITZUAK ERABILTZEKO DUTEN AUKERA

7.1 UDALEAN

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	ETORKINAK	
		PAPERDUNAK	PAPERBAKOAK
Gizarte Zerbitzuak	Adingabekoei babesa	Bai	Bai
	Langai	Bai	Ez
	Ikastaroak	Bai	Ez
	Hezkuntza Okupazionala	Bai	Bai (Praktikekin arazoak)
	Osasun Txartela	Bai	Bai
	Orientazio Juridikoa	Bai	Bai
	GLL-AES laguntzak	Bai	Bai
	GGD-IMI laguntzak	Bai	Ez
	Eskola-porrota	Bai	Bai
	Drogamenpekotasuna	Bai	Bai
Idazkaritza	Bestelako informazioa (eskolako programak)	Bai	Bai
	Errolda	Bai	Bai
Euskara Zerbitzua	Euskara Errefortzuak Haurrentzat	Bai	Bai
	Euskaltegia 16 urtetik aurrerakoentzat	Ez dauka ezer berezirik	
Kontu-hartzaileak	Zergak	Bai	Bai
Udaltzaingoa	Merkatu txikia	Bai	Ez
Kirolak	Txartela	Bai	Bai
	Eskola kirola	Bai	Bai

7.2 UDAL KANPOKO ERAKUNDE EDO AGENTEETAN

ERAKUNDEA	ZERBITZUA	ETORKINAK	
		PAPERDUNAK	PAPERBAKOAK
CARITAS	Jantzitegia	Bai	Bai
	Orientazio Juridikoa	Bai	Bai
	Bestelako orientazioa (lana, etxebizitza...)	Bai	Bai
	Hizkuntza irakatsi	Bai	Bai
HHI (EPA)	Hizkuntza irakatsi	Bai	Bai
	Harrera (azoka, Caritas, Udala...)	Bai	Bai
	Orientazio Juridikoa	Bai	Bai

8 ETORKINEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN ZERBITZU ETA LAGUNTZETAN AURKI DAITEZKEEN HUTSUNEAK

8.1 LEHENENGO HARRERA

Hauek izan daitezke eremu honetan aurki daitezkeen hutsuneak:

Orokorrean, esan daiteke udalean etorkinentzat ez dagoela harrera planik ezta etorkinen lehen beharrei erantzuteko baliabiderik.

Bergaran ez dago inolako pisu, aterpe, edota etxerik etorkin edo ibiltarientzat harrera egiten duenik. Hau da, ez dago leku bat lo egiteko edo/eta egoteko, lana edo etxebizitza aurkitzen diharduten bitartean.

Dirulaguntzei dagokienez, hauek, askotan, etorkinentzat bizi irauteko beharrezkoak dira. Hala ere, dirulaguntzak jaso ahal izateko etorkinek hainbat baldintza bete behar dituzte. Horrela, baldintzak bete arte, askok, ez daukate diru sarrerarik (lanik egiteko aukera ere ez daukatelako), eta ondorioz, bitartean beraien egoera oso larria izan daiteke.

Elikaduraren kasuan, ibiltariei edo beharra dutenei bokadilo bat jateko aukera ematen zaie. Baina herrian gelditzen direnentzat, edota egoera larrian bizi direnentzat, ez da nahikoa izaten. Hala eta guztiz ere, Caritasek etorkinei janaria eskaintzen die dirulaguntzak jaso edo lana aurkitu arte.

8.2 LANA

Legeak mugatzen du Udalaren ahalmena eremu honetan irtenbideak aurkitu ahal izateko. Horrela, Udalak etorkin paperdunei bakarrik eskaintzen dizkie bere zerbitzuak, beste herritar bat gehiago izango balira bezala.

Bestalde, paperik ez dutenei zerbitzu gutxi batzuk eskaini ahal zaizkie. Hala eta guztiz ere, zaila da zerbitzu hauek era oso batean gauzatzea, adibidez, enpresetan praktikak egitea, horretarako ere paperak eskatzen baitituzte.

Beraz, paperik ez dutelako ezin dute lanik egin eta lanik ez dutelako ezin dute paperik lortu.

8.3 ETXEBIZITZA

Etorkinek ere zailtasun handiak izaten dituzte etxe bat alokatzeko, eta oraindik gehiago, etxe bat jabetzan hartzeko. Etxe baten jabe izateko diru asko behar da gaur egun; ondorioz, etorkinentzat etxebizitza bat lortzeko biderik egokiena alokairua da. Hala ere, askotan, etorkinentzat alokairuan bizitzeko etxe bat aurkitzea ez da gauza erreza izaten, askotan etxeen jabeak ez direlako etorkinez fidatzen.

Etorkin batzuk, askotan, udaletxera jotzen dute etxebizitzaren arazoa konpondu nahian. Udalak berriz, honen inguruan, ezin du ezer egin.

8.4 HEZKUNTZA

Orain arte, Hezkuntza departamentuak ez du gauza handirik egin etorkinen inguruan. Dena den, une honetan sail hau indartzen ari da eta gaia heltzeko asmoa du.

Momentu honetan, zerbitzu honek, dirulaguntzak ematen ditu eta ikastetxeek parte hartzeko ekimen bat edo beste antolatzen ditu.

Hezkuntza mailan, haur etorkinak eskolaratzeko orduan, gai bat bereziki kontuan hartu beharrekoa dirudi: etorkin guztiak eskola berdinean matrikulatu ez daitezela. Nahiz eta jada zerbait egiten ari den honen inguruan, arazo batzuk aurkitu ditugu. Egia delako epez kanpo matrikulatzen diren haurrak eskola ezberdinetan banatzen direla. Baina epearen barnean, nahi duten eskolan matrikulatu daitezkeenez, urte batetik bestera etorkinak eskolaz aldatu daitezke inolako traba barik. Horrela, eskola batzuk "getto" bilakatzeko arriskuan egongo dira, etorkin gehienak bertan pilatu daitezkeelako.

8.5 KIROLA

Kirola bide oso ona da atzerritarren integrazioa bultzatzeko eta baita beraietaz eta beraien kulturaz zerbait gehiago ezagutzeko. Gauzak horrela, Udalak etorkinek herrian praktikatzen dituzten kirolak herritarrengana hurbiltzeko esfortzua egin beharko luke.

Udal kirol instalazioak erabiltzeko txartelen tramitazioari dagokionez txartela egitea garestiegia dela dirudi.

Bestalde, Eskolako Kiroleko ekintzetan haur etorkin batzuk daude, baina ez egon beharko liratekeen guztiak, integrazioarako aukera eder bat galduz.

8.6 EUSKARA

Etorkin helduekin Udalak zerbait gehiago egin dezakeela dirudi, Udal Euskaltegia etorkin helduak euskararen mundura hurbiltzeko tresna paregabea izan baitaiteke, aprobetxatu beharrekoa.

Haur eta gazte etorkinen kasuan berriz, euskara ikasteko aukera gehiago daukate, eskolan ikasten dutelako. Horretaz gain, euskarako errefortzuak jaso eta euskarazko aisialdian parte hartu dezakete.

8.7 KULTURA

Etorkinen gizarteratzea ez da eurei bertako hizkuntza eta kultura erakutsi eta eurak hori onartu eta bertako partaide izatea bakarrik, bertakook ere atzerritarren kultura ezagutu, onartu, errespetatu eta elkarrekin bizitzen saiatu behar dugu.

Helburu horrekin eta Bergaratarrei herrian ditugun etorkinen kultura ezberdinak ezagutarazteko, kultur artekotasun eta kultur aniztasuneko ekintzak antolatzea oso positiboa iruditzen zaigu. Horrekin batera, sentsibilizazio kanpainak antolatu eta jorratu beharreko beste bide bat dela deritzogu.

Udal liburutegia gutxi erabiltzeko bi arrazoi posible ikusten dira: alde batetik internet erabiltzeko ordaindu behar izatea, eta bestetik ingelezko (edota euskera edo gaztelera ez den beste hizkuntzen) liburuen aukera murrizta.

9 HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

9.1 OROKORREAN

- Etorkinak gure gizartean era egokienean integratzeko Udaleko zerbitzu edo departamentuen arteko koordinazioa eta elkarlana gehitzea.
- Helburu berdinarekin, Udalaren eta udalaz kanpoko erakundeen (edo agenteen) artean koordinazioa eta elkarlana hobetzea eta indartzea. Adibidez, Udala eta herriko agente ezberdinekin osatutako 'mahai' batek, egun Bergarako erakundeen eta Udal zerbitzuen artean, dagoen lotura falta konpontzea erraztuko luke.
- Tailer, hitzaldi, ikastaro, edo gizarteratzeko bide bezala erabili daitezkeen baliabide guztiak martxan jartzea komenigarria izango zen, etorkin zein herritarrentzat.

9.2 HARRERA

- Etorkinentzat Harrera Plan bat eratzea. Honen barruan, zerbitzu zentralizatu bat sortu etorkinei harrera egiteko eta dituzten zailtasunen aurrean laguntza eta orientazioa eskaintzeko, eta ahal bada, dituzten arazo eta zailtasunei irtenbideren bat aurkitzeko. Beti ere gure herrian egoki integratzeko helburuarekin.
- Gizarteratze prozesu honetan interesgarri izan daitekeen informazio osoa, udal barruko zein kanpo erakundeena, batzen duen gida edo liburuxka baten biltzea eta argitaratzea.
- Hizkuntza askotan muga izaten da; beraz, udaleko langileek etorkinekin elkar ulertzeko zailtasunei erantzuten jakin beharko lukete: hainbat kontaktu eduki beharko lituzkete jatorri ezberdineko eta bertoko hizkuntza dakiten familiekin, inguruko itzultzaile enpresei laguntza eskatu, langileek hizkuntzak ikasi (ingelese edo frantsesa, adibidez).

9.3 KULTURA

- Herritarrak kultur artekotasunaren, kultur aniztasunaren eta immigrazioaren inguruan sentsibilizatzeko kanpainak antolatu.
- Udal liburutegiak bertakoak ez diren beste hizkuntza batzuetako materialekin duen eskaintza osatzea ere aberasgarria izango litzateke.

9.4 KIROLA

- Kirol instalazioak erabiltzeko txartela garestiegia da. Agian Udalak, kasu batzutan, nolabaiteko malgutasuna topatu beharko luke, txartela eskuratu dezaten.
- Eskola Kirolean, kirol zerbitzuak esfortzua egin beharko luke ahalik eta haur etorkin gehienak eskola kirolean parte har dezan, garrantzitsua baita. Horrela, kirola egiteaz gain, hizkuntza landu eta haur eta gazteen integrazioa bultzatu ahalko litzateke.

- Herrian, etorkinek praktikatzen dituzten kirolak, kriketa adibidez, aprobetxatu beharko lirateke etorkin ezberdinen kulturara gerturatzeko eta ezagutzeko.

9.5 LANA

- Gero eta emakume etorkin gehiago daude etxeetan laguntzaile bezala lanean, haurrak edota nagusiak zaintzen. Beharbada, Udalak eremu honetan nola jokatu behar duen definitu beharko luke.
- Euskal Herriko lan kulturaren ezaugarri nagusien inguruko ikastaro edota hitzaldiak antolatzea.

9.6 ETXEBIZITZA

- Udalak zerbait egin beharko luke etorkinek etxebizitzak alokatzeko orduan dituzten zailtasunen aurrean. Ezer egin aurretik, udal barruan gaia apur bat gehiago jorratu beharko litzateke.

9.7 HEZKUNTZA

- Baliabideak (material, pertsonal eta ekonomikoak) areagotzea, ikastetxetatik etorkinei eskaintzen dizkieten laguntzak hobetzeko.
- Etorkinen integrazioa ahalbidetzeko garrantzitsuak dira eskolaz kanpoko ekintzak. Beraz, garrantzitsua da etorkinak aisialdia eta eskola kirola bezalako ekintzetan parte hartzea beraien integraziorako. Gauzak horrela, aisialdiko, kirol zerbitzu eta beste eskolaz kanpoko ekintzetan etorkinek parte hartu dezaten ahalegin handiagoa egitea komenigarria da.
- Etorkin ikasleen banaketa kontuan izan beharko litzateke, ez bakarrik epez kanpo matrikulatzen direnean, baita epe barruan matrikulatzen direnean ere. Etorkinak eskola baten kontzentratzea ekidin behar da, bertako irakasleen lan kopurua murrizteko eta baita "getto" edota immigranteen eskola sor ez dadin.

9.8 EUSKARA

- Ahalegin berezia egin beharko lukete, bai Euskara departamenduak bai HABEk, etorkin helduen alfabetatze prozesua errazteko. Horretarako, behar bada, gaur egungo hainbat eskema zein sistema eraberritu beharko litzateke.

AMAIERA OHARRA

Txosten hau osatzeko erabili diren datuak erroldarenak dira, maiatzean jasotakoak. Bergarako errealitatera hurbiltzen bagaituzte ere, jakin badakigu une honetan dugun etorkinen kopurua handiagoa izan daitekeela, 600 inguru.

Bi arrazoi nagusi daude hau azaltzeko:

- Alde batetik, etengabe aldatzen ari den errealitate bati buruz ari garelako eta pertsona hauen mugikortasuna oso handia delako.
- Bestetik, arrazoi ezberdinengatik, Bergaran bizi baina erroldan agertzen ez den etorkin kopuru zehatz bat dagoelako.

Edonola, gutxi gora behera, dagoeneko Bergarako biztanleriaren % 4ari buruz hitz egiten ari garela baieztatu dezakegu.

Bukatzeko aipatu, gure ustez, epe ertainera, jende etorrera honek jarraituko duela. Hori dela eta, egoera berri honek erronka garrantzitsu bat suposatzen du herriko erakunde eta bizilagunentzat.